

Nafarkaria


Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko azaroak 12 / III. urtea / 101. zenbakia

Iruñea caló

Duela 572 urte heldu ziren Iruñera, eta urtetan arrazakeria, bortizkeria, erasoak eta mesprezuak jasan badituzte ere, lehen baino hobeto daude egun. Eskolarizazioa hasi berria, elkarteetan bilduta, ez dituzte, baina, ohizko arazoak gainditu: etxebizitza, langabezia eta osasuna arloetan ez dute, ezta urrik eman ere, gutxienezko maila oraindik lortu.

Joan den astean ospatu dira Iruñean ijito eta egaxuen arteko elkarbizitzari buruzko jardunaldiak, eta emaitzak oso onak izan badira ere —pilota partiduak eta mintzaldiak barne—, oraindik mesfi-

dantza eta aurriritzi franko badago bere kultura inondik inora galdu nahi ez duen arraza honekiko. «Integratzeko apustua egin dugu» diote haiek, «baina ez dugu asimilazioa onartzen. Euskaldunek euren gauzak dituzte, guk bezala, eta bakoitzak bereari eutsi behar dio».



Ijitoak Iruñeko Jarauta kalean.

JOXE LACALLE

Amen eta omen



AINGERU EPALTZA

Ez dakit zein den arrazoina. Ezezagun zaizkit bulego ofizialetan, diru publikoaz nasaiki baliatuz eta kamioikada bete espedienteren artean erabakiak hartzen dituzten horien garunetako mekanismoak. Hain segur ere,

ez zuten ICONAren txostena espero. Agian, joan den larunbatean Iruñeko karrikak irauli zituen manifestazioa uste baino jendetsuago gertatu zaie. Auzia Nafarroatik kanpora ateratzen ari den asots gogaikarria ere izan liteke. Adostasunaren bloke monolitikoan aspaldi honetan izan diren ihesak ere, beharbada. Ez dakit.

Afera da gero eta gehiago direla, noski, Itoizko urtegiaren kontua garbi ez, baizik uher ikusten dutenak, Iratiko arroan beheiti egun hauetan jausten diren uren gisa. Kontrako oi-

huak ozenagotzen ari eta belarrietan mina hartu dute. Eta belarrietako minaren apaltzeko, nerbiosturik, deika hasi dira, laguntza eske. Hernanin egiten ez diren egunkarrietan, ETAren eskuhartze posibleaz agertzen ari diren 'analisi' eta iritzi artikulua irakurri baizik ez da.

Ez dira ergelak, ez. Bertze batzuek ez bezala, oroimena ez dute eskas. Eta oroimenarekin, eskarmentua. Badakite, adibidez, hilotz odoleztatu baten argazkiak eragin haundiago erdiesten zuela Urralburuk foralitateaz eman hamaika mintzaldik baino. Toki egokian paraturiko lehergailuak anexioaren arriskuaz Del Burgo erraten ahal zituen guziek

baino oihartzun zabalagoa sortarazten zuela.

Eta deika hasi dira. Ez, bistan da, Galizia Etorbideko Komandantziara. Ezta Merinaldeen Plazako Gobernu Zibile-ra. Erraten ez badute ere, beren mezuak Donostia edo Angelu, Bilbo edo Hendaiara igortzen dituzte, euskara dotorean komunikatu luze bezain mamiz hustuak idazten dituen aluzinatu izengabeari ailegatuko zaizkion esperantzaz.

Hamua urean da jadanik. Orain, ikusleei egotea baizik ez dagokigu, 70. hamarkadako

trip-literatura Euskal Herrira ekarri digun arrain horrek irentsiko duen ala ez. Iratiko arroaren inguruan eztanda bat aditzen dugun egunean, ordea, irri ederrak eginen dituzte Iruñea eta Zaragozako zenbait bategotan.

Gure aukerak

ERAKUSKETAK



Natxo Barberena pintorearen erakusketa ikusgai dago Iruñeko Aurrezki Kutxa Munizipalak Rodezno Kontea kalean duen aretoan. Azaroaren 14a arte iraunen du erakusketa, eta ordutegia ohizkoa da: 19.30etatik 21.00etara, eta jai egunetan, 12.30etatik 14.00etara.

Javier Eskirotz artistaren erakusketa zabalik dago Tafallako Kultur Etxean, azaroaren 24a arte, Kultur Patronatoak antolatutik. Herriko eskultore honen lanak lan egunetan arratsaldean eta jai egunetan goizez ikus daitezke.

ANTZERKIA



'**Rezagados**' izeneko antzerki lana eskainiko du igande honetan, azaroak 14, Geroa taldeak. Emanaldia Nafarroako Antzerki Eskolaren aretoan izanen da, San Agustin kalean, eta arratsaldeko 20.00etan hasiko da. Sarrerak 600 pezetatan salduko dituzte, gazte txartela edukiz gero, 300 pezetatan. Era berean, gaur arratsaldeko 20.00etan Tafallako Kultur Etxean izanen da talde hau, obra bera eskainiz. Dohainik izango da.

'**Memoria de Bolero**' izeneko antzezlan eskainiko du gaur gauean, azaroak 12, Tranvia Teatro taldeak. Antzerki emanaldia Zizur Nagusiko Kultur Etxean izango da, bertako udalak antolatutik. Gaueko 22.00etan hasiko da.

MINTZALDIAK



Ana Diosdado aktorea eta idazle ospetsua izango da Iruñean datorren ostegunean, azaroak 18, mintzaldi bat emateko. 'Emakumea eta literatura' zikloaren barruan, eta Nafar Ate-neoak antolatuta, hitzaldia Aurrezki Kutxa Munizipalak Armada etorbidean duen aretoan izango da, 20.00etan.

'**Garapena eta ingurugiroa**' gaiari buruzko mintzaldia eskainiko du gaur ostirala, azaroak 13, Pablo Bifani ekonomista italiarra. Hitzaldia Lizarrako Fray Diego Kultur Etxean izango da, arratsaldeko 20.00etan.

ZINEMA




'**Armas de mujer**' izeneko pelikula botako dute datorren ostegunean, azaroak 18, Tafallako Zinema Españolan. Herriko Kultur Patronatoak antolatutik, bi saiotan eskainiko dute: arratsaldeko 20.00etan bata eta gaueko 22.30etan bestea.

Endarlatsa-Aiako Harriak

Gipuzkoan sartuko gara lehendabiziz, eta honek ez du, derigorrez, gehiagotan errepikatzeke parada eman behar, jakina. Izan ere, Club Deportivo Navarra taldeak aurtengo denboraldiari hasiera eman baitio, eta hau izango da lehendabiziko ateraldia. Horretarako, badakizue izena eman behar dela bertako bulegoetan, Jarauta 78an, edo 22 43 24 telefonora hots eginez. Oiartzun, Irun eta Lesakako dermioak hartzen dituzten Aiako Harrietara txangoa antolatu dute asteburu honetarako, lau orduko ibilbidea hain zuzen ere.

Aiako Harriak Euskal Herriko kostaldean dagoen mendirik berezietakoak dira. Itsasotik hamar kilometro eskasera, granitozko menditza hau altxatzen da, eta oso erraz antzeman daitezke bere ertzeak eta irudi ezaguna Euskal Herriko tontor anitzetik. Ibilbidea Endarlatsako zubitik hasiko da, alegia, Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko mugatik.

Hortik abiatu, eta Endara errekatik gertu, San Antoneko urtegia ondo-ondoan utzita, Ingelesaren gaztelura helduko gara. Hor topo egingo dugu Irungo Ibarla auzotik ateratzen



den errepidearekin. Maldak franko gogorrak, Erlaitzera daramate, eta hortik, Pikoketatik zehar, Irungo Bentak auzora berriro ere. Ezagunak dira oso inguruko txirriindularien artean, entrenatzeko paregabeak baitira. Inguru guzti hau oso famatua izan zen Espainiako Gerran, Erlaitzen baitzeuden hasieran Irun defendituko zuten eta gero San Martzialen eroriko ziren gudariak.

Gaztelutik gora hasiko gara,

Irumugarrietara, hau da, Aiako Harrien tontor txikienera (810 m.). Hortik beste biak —Txururumuru (826) eta Erroilbide (836)— egingo ditugu, eta berriro Irumugarrietara, Elurretxeko lepotik zehar, Pikoketara jeisteko. Eguraldi ona eginez gero, Pirinioak ikus daitezke atalaia paregabe honetatik, eta baita Donostia, Hendaia, Donibane Lohitzune, Lesaka eta inguruko beste hainbat herri ere.

ASTEKO PERTSONAIAK



Juan Ramon Jimenez
Hazienda Kontseilaria



Eugenio Arraiza
Oinarriak-eko kidea



Fernando Sebastian
Iruñeko Artzapezpikua

Nafarroako Gobernuak 1994eko aurrekontu proiektua onartu eta Parlamentura bidali du aste honetan, alde aurretiko sostengurik ez izan arren. Proiektu hau, Juan Ramon Jimenez Hazienda sailburuaren arabera «arrazoizkoa da, Nafarroak une honetan behar duena, inbertsioak gutxitu gabe defizita murriztea eta gastu publikoa kontrolatzea lortu baitugu». Aurrekontu proiektua 230.883 milioi pezetakoa da, beraz, % 3,6 murriztu da aurtengoaren aldean. Onespina oposizio alderdien esku dago, eta dagoeneko, HBK iragarri du osoarekiko emendakina aurkeztuko duela. IU-Ezker Batuak, berri, aukera hori aztertzen ari dela adierazi du. EA eta PSNk, hasieran batean, ez lukete arazo gehiegirik jarri beharko, hitzarmenez lotuta baitaude UPNrekin.

Oinarriak taldeak II. Agerraldia antolatu du biharko Iruñean, iazko maiatzan egin zuen bezalaxe. Oinarriak taldea sortu zenean 23 puntuko eskakizun taula kaleratu zuen, beharrezkoak guztiak euskaren normalizazioa lortzeko. Egoera, ordea, ez da aldatu eta bigarren Agerraldia antolatzea erabaki dute, «batetik gogorarazteko euskarentzako hain premiazkoak diren zenbait neurri oraindik indarrean jarri gabe daudela, eta bestetik, komunikabideen arloan euskarak pairatzen duen bazterketa bereziki salatuz», azaldu zuen Eugenio Arraiza Oinarriak-eko kidea. 'De tu tierra, de todos, el euskera' 'Euskal komunikabideak legezkoak' lemapean abiatuko da Agerraldia bihar Autobus Geltokitik, arratsaldeko bostetan.

Nafarroan bakarrik lortu dute homosexualek akordio batera iristea Artzapezpikuarekin, apostasiaren kanpaina zela eta. Jakina denez, EHGAM taldeak joan den otsailan hasi zuen apostasiaren aldeko kanpaina, eta aldi berean, artzapezpikutzaren bikarioarekin biltzen hasi ziren Iruñean, akordioaren batera iristeko. Eta bilera horiek lortu zituzten emaitzak, Artzapezpikutza hitza eman baitu apostasia eskaerak bildu eta tramitatzeko. Ondoren, dagozkien parrokiara bidaliko dituzte. Eta ez hori bakarrik, ondoren, eskutitz bana bidaliko diete apostasia egin duten guztiei, beren egoera berria argitzeko. Pozik agertu ziren EHGAMekoak, Nafarroan lortu baita apostasia egiteko eskubidea, eta hori kontutan hartuz Artzapezpikuaren aldaketa izan dela.

AHAZTU GABE!

ITOIZKO urtegiaren kontrako bizikleta marxa bat antolatu du asteburu honetarako 'La tortuga perezosa' taldeak, Itoizko koordinadorearen laguntzarekin. Era berean, Anat-Lane, Eki, Eguzki eta Angiluerreka talde ekologisten laguntza jaso du.

Bihar, azaroak 13, goizeko 11.30etan izango da irteera, Gaztelu Plazan. Eguerdiko ordubietan, antolatzaileen kalkuluen arabera, Agoitzera iritsiko dira eta bertan, 'herri bermuta' ospatuko da. Ordu-bete beranduago 'lentejada' prestatu dute guztientzat.

Arratsaldeko seietan Iribide Institutuko antzerki taldea ariko da, ondoren Angiluerrekako dantzariak eta beste-lako ekitaldi batzuk. Afal ostean, 'Patagonia' taldeak kontzertu bat eskainiko du Angiluerreka elkartearen.

Igandean, berriz, eguerdiko 12.00etan hasita, bizikleta marxa izango da Agoizko kaleetan, txaranga baten musikarekin. Ordu-bete beranduago bazkaria eta ondoren, Iruñera itzulia. Marxa honetan laguntzeko kotxeak izango dira eta lo egiteko badago lokal bat. Hala ere, jateko tresnak, lo zakua, eskuargia eta jantzi nahikoa eramatea gomendatu dute antolatzaileek.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, '**Zokobetailu**' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

EUSKALERRIA Irratiaren aurkezpen festa izango da datorren ostegunean, azaroak 18, Barañaingo Haizea Elkartearen. Arratsaldeko 20.00etan hasita, bertan, irratiko arduradunek bere asmo berriei buruz mintzatuko dira. Ondoren, dantzariak, akordiolariak ariko dira, eta jai luntx batekin amaituko da. Bereziki, Barañaingo euskaldun guztiak gonbidatu dituzte jaiaren parte hartzera.



HERRIZ BERRI



Burlata

Musika eta dantza barra-barra



PATXI ULAIAR / IRUÑA

Kultur ekitaldi ugari antolatu dira heldu diren egunetarako Burlatan, Hilarion Eslava musikagile famatuaren omenez. Horren hasiera astezkenan izan zen bertako Kultur Etxean, 'Hilarion Eslava eta Burlata' izeneko erakusketa-ekin. Hilaren 26ra arte egongo da irekita, 19.00etatik 21.00ak arte.

Hala ere, ekitaldirik erakarrienak musikari handiaren omenez antolatu diren kontzertuak izango dira. Heldu den igandean, hilak 14, Iruñeko Agrupacion Coral de Camara taldeak, Jose Luis Eslavaren zuzendaritzapean, kontzertua eskainiko du eguerdian, Kaputxinoen Elizan. Ostegunean, hilak 18, maisuari buruz mintzaldi-kontzertua izango da, Aurelio Sagaseta Iruñeko Katedralaren maisuaren eskutik eta bertako Musika Kapelaren partaidetzarekin. 20.00etan izanen da, Kultur Etxean. Ostiralean beste kontzertu bat izango da Barañaingo Koralararen eskutik, 20.00etan, eta larunbatean, hilak 20, ordu berean, Kontzertu Nagusia, San Blas korala eta Pablo Sarasate kontserbatorioaren Orkestra Gaztearen partaidetzarekin.

Horretaz gain, bihar, larunbata, 'Bailarak' izeneko musika



Hilarion Eslavaren omenezko ekitaldi ugari aste honetan.

eta dantza jaialdia izango da ikusgai Elizgibela kiroldegian, 20.30etatik aurrera. Alfonso Iturria eta Angel Sague- sen zuzendaritzapean, Larratz Dantzari taldea, Burlatako txistulariak, gaiteroak, San Blas Korala, Metal Boskotea, Musika Banda Kulturala, Erraldoiak eta Kili-kiak, joteroak, txalapartariak, soinulariak eta gitarra joleak ariko dira bertan, eta zenbait aktorek ere parte hartuko dute, Burlatako pertsonaia historikoak antzetzuz.

Ikuskizunaren funtsa Lucas Aierbekoa pertsonaia historikoa da. Bertako sorgina, petrikiloa eta aztia zen, eta burlatarrak engainatu zituen, Done Salbatore ermita ondoan altxor bat bilatu behar zutela esanez, berak konjuroak egiten zituen bitartean. Burlatarrek auzitegira eraman zuten aztia. Istoriario honen inguruan Larratz Dantza Taldeak koreografia bat prestatu zuen ihauterietarako, eta hori izango da, Burlatako hainbat talderen partaidetzarekin, taularatuko dena.

Egitaraua zabal eta aberats batekin, Euskal Herri osoko folklorea eta hainbat ikuskizun taulatatuko dira jaialdian, hala nola Arraiozko erregeiñe, Otsagiko dantzak, Arizkungo ihauteriak, Lesakako dantzak, eta abar.

LEITZAko Arkupeak elkarteak antolatu du igande honetarako Herrien Arteko Anaitasuneko Jaia, Baztan, Malerreka, Bertizarana, Bortzirriak eta Leitzarango jubilatuen partaidetzarekin. Festa 10.30etan hasiko da, dianak eta kalejirekin, eta ondoren meza nagusia izanen da San Tiburtzio elizan. Bertan Leitzako Korala eta zenbait bertsolari ariko dira. 13.00etan, Amazabal frontoian, herri kirola izanen da, eta Iñaki Perurena leitzararra esku bakar batekin marka berri bat jartzen ahalginduko da. Ondoren aizkolarien txanda izango da, eta akaberan, bertsolariena. Bertan Manuel Lasarteri omenaldia egingo zaio. Bazkaria eskoletan izango da, eta ondoren dantzaldia.

BAZTANgo II. Ihardunaldi Gastronómicoak hasiko dira gaur, ostirala, Bertizko Kontsorzioak antolatuta. Oraingo Hamabostaldia gisatuak eta barazkien inguruan antolatu da. Menuak 1.500 eta 3.000 pezeta bitarteko prezioa izango dute eta babarrunak, garbantzuak, txahal- kia, basurde, arkumea, oreina eta konejua izango dituzte osagarri- ak. Jattetxe aukeratuak Almandozko Beola Berri, Arantzako Burlata, Dantxariako Beotxea, Urdazubiko Menta, Donamariako Benta; Elizondoko Galarza, Eskisario, Santxotena eta Txoko- to; Errazuko Altxa Erreka; Iruirako Clari; Lesakako Berezu eta Koxkanta eta Narbarteko Herri Ostataua izango dira.

Zizur Txikia

Arakil

Gazteen mendi ibilaldia

IRUÑA

Igande honetan ospatuko da I. Iruñerriko Gazteen Ibilaldia: Zizur Txikia-Erreniega-Zizur Txikia, VII. Nafarroako Kirol Jokuen barruan. Napar Mendizale Federakundearen Pedagogia Bokaliak antolatuta, 12 eta 15 urte bitarteko gazteei dago zuzenduta, eta parte hartzeko baldintza bakarra, Nafarroako Kirol Joku guztietan ordaindu beharreko 200 pezeta ordaintzea izango da.

Partaidetza lau laguneko taldeen bidez izango da, eta talde bakoitzak bere txartela eramango du. Bost kontrol egongo dira ibilbidean zehar, eta behar-beharrezkoa izango da kontrol guztietatik pasatu eta txartela bertan seilatzeari. Erreniegako tontorrean zerbait jateko eta edateko aukera izango da.

Ibilbidea, esan bezala, Zizur Txikitik aterako da, frontoitik, eta txaletak zeharkatu ondoren, errepidearen zati bat hartuko



Gazteen mendiarekiko zaletasuna bultzatu nahi da.

du ibilbidea, Zizur Nagusiko zingirara heldu baino lehen. Hor izango da lehendabiziko kontrola. Hortik Zarikiegira joango da ibilbidea, eta gero, iturria, frontoia eta ur depositua gaintu ondoren, Erreniegara abiatuko da zuzenean. Bertan izango da bigarren kontrola. Itzulbidea Galarrea eramango

ditu partaideak, eta gero, Zizur Txikira.

Parte hartuko duten guztiek diploma bana jasoko dute, eta lehendabiziko taldeak dominak eta kopa; bigarren eta hirugarrenari dominak emango zaizkie. Ibilbidea Donejakue Bideari jarraituko dio, eta seinalizaturik izanen da.

Euskarari buruzko ekintzak

IRUÑA

'Euskera-Arakil' izeneko programazioa antolatu du Arakilgo Udalak eta Animazio Sozio-Kulturalerako Zerbitzuak, Nafarroako Gobernuaren laguntzaz, gaur hasita eta heldu den 27ra bitarte. Gaur Hiriberrin, 20.00etatik aurrera, 'Euskera Arakilen' izeneko hitzaldia emango dute Pello Astizek eta Jose Maria San Sebastian 'Latxagak' eta bihar, larunbata, 10etan, haur jolasak izango dira. Bihar ere, eta Ihabarko frontoian, 18.00etatik aurrera, antzerkia, Trokolo taldearekin, eta heldu den ostiralean, azaroak 19, Arakilgo toponimiaz mintzatuko da Mikel Belasko teknikaria Izurdiagan, 20.00etan. Larunbatean, azaroak 20, ginkana eta antzerkia izanen dira Sastrustegin eta Etxarrenen, eta azaroak 26, ostirala, Arakilgo folkloreak ariko da Joseba Ozkoidi Etxeberrin. Hurrengo egunean, 'Ozko aztia' filmea ikusi ahal izango da Egiarretan.



ZIZUR NAGUSIko antimilitaristen taldeak (ZIGA) ukatu egin du bertako zenbait zinegotzien seme-alaben kontrako mehatxuak egin izana. Aste honetan emandako prentsaurreko batean, aurtengo festetan izandako istiluei buruz bere iritzia eman zuen taldeak, Cendea Unida eta Herri Batasuna taldeen laguntzarekin. Arazoa antimilitaristak barraka paratzen saiatzean sortu zen, udalak ezetza emana baitzuen eskerra ofizialari. Udalak Goardia Zibila bidali zuen, eta ZIGA taldeak protestak eragin zituen txupinazoren jaurtiketan. Hala ere, ukatu egin zuen arraultzak bota izana. Taldeak azaldu zuenez, barraka eskatzeko prozedimendua erabat legala zen, eta Enrique Jaurrieta Kultur Batzordeko presidentea eta Luis Iriarteren dimisioak eskatu zituen. HB zein CU taldeek, beren aldetik, gezurti deitu zioten Luis Ibero alkateari.

K antatzeko era ezberdinen artean ijitoen jondo-a dagoen bezala, Iruñean badao Alde Zahar 'jondoa', ijito iruindarra. 1421. urtean ailegatu ziren Iruñera, eta orduetik, hainbat eraso eta arrazakeria gaudituz, gure artean bizi izan dira. Egundun 3.000 inguru dira Nafarroa osoan, eta horietariko gehienak Iruñean, Tuteran eta Lizarran bizi dira, Alde Zaharretan gainera. Alde Zaharrak eta ijitoak, beraz, nahiko bateraturik ibili dira urte guzti hauetan. Azken urteotako hustutzeak —azken datuen arabera, Iruñeko Alde Zahararen pisuen % 25 hutsik dago—, baina, ghetto sortzeko arriskua nabarmendu du eta elkarbizitza gorabeheratsu honi buruz ihardunaldiak antolatu berri ditu Alde Zaharreko Elkarteak. Pilota partiduak, mintzaldiak, beren izaerari eutsi nahi dion arraza honekiko hurbiltasuna bultzatzeko.

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑEA

Ijito eta *payo*-en arteko harreman gatazkatsuei buruzko berriak argitaratzen dituzte noizean behin komunikabideek. Batzuen eta besteen arteko harremanen gaia, ordea, ez da normalean laisatasunez aztertzen. Iruñeko Alde Zaharreko Auzo Elkarteak erronka horri heldu zion joan den astean, 'Elkarbizitza Alde Zaharrean' jardunaldiak antolatuz. Nafarkariak ere erronkari heldu nahi izan dio, eta hiriburuko Alde Zaharreko elkarbizitzari buruz lasai aski hitz egin du La Majari Ijitoen Elkartearen ordezkariekin batetik, eta Auzo Elkartearekin bestetik.

Merced kaleko haien egoitzan hartu gintuzten La Majariok, hainbat gaztek gidatzeko karneta gaudituzko klaseak hartu, eta zenbait neskatilek jostile ikastaroa egiten zuten bitartean. Herenegildo Jimenez elkarteko lehendakariak hasi bezain laster, egundun Alde Zaharrean gustura daudela azaldu zigun, «orain ez baitago elkarbizitza arazo handiegirik». Dena den, arrazakeria oraindik ere egundun bada goela gaineratu zuten. «Duela onartuko esaten zuten, eta hori adibide bat besterik ez da».

Etxebizitza Alde Zaharreko ijitoen arazorik handienetarikoa bat da. Auzoan etxe ilun eta txiki anitz dago, eta bat baino gehiagok komunik ere ez dauka. Arazoa larria da izatez, baina hori —ijitoen kasuan— etxebizitza bakoitzean lagun asko bizi ohi direla gehitu behar zaio. «Ijitoa zikina dela esaten dute, baina garbigia dela esaten nuke nik, etxe batzuen bizi baldintzak kontuan hartuz. Berrogei metro karratuetan hamabi lagun pilatzen dira, sarritan komunik ere ez dutela». Maiz saiatu dira afera Udalaren laguntza konpontzen, baina orain artean ez dute laguntzik jaso. «Jaime alkatearekin hitz egiten saiatu gara, baina ez digu behin ere erantzun. Berriekin egundun ginen, eta hitz polit asko eta irtenbide gutxi eman zizkigun».

Irakaskuntza, bestalde, arazo handia izaten ohi da ijitoentzat. Alde Zaharreko ijitoen seme-alabak San Francisco eskolatan aritzen dira, eta erabat integraturik daude. Integrazioa, ordea, kostata lortu dute, eta Iruñeko beste zenbait eskolatan oraindik ere arazoak daukate. «Duela lau urte eskolarizazioaren erronkari ekin genion, eta jada gaztetxoek ere —hiruzpalau urtekoak— eskolara hasi dira joaten». Arrazakeri arazo horiek gaudituz ahal izateko, bi gizarte langileen laguntza dute, eta horretaz gain La Majari buruek eskolaketako hurrei hitzaldiak ematen dizkiete —hamalau joan den urtean— arazoak gertatzen direnean.

Sarritan, droga eta ijitoen arteko lotura estua aipatzen da. Iruñeko Alde Zaharrean egundun lotura



Alde Zahar 'jondoa'

askatu egin dela uste du Jimenezek. Ijitoek berriak egin dute horetarako egin beharreko lana. «Afera gure artean konpondu genuen, eta auzoan drogarekin jada arazorik ez daukagula esan daiteke». Azkenik, asimilaziorik gabeko integrazioaren alde apustu egin zuten La Majari lehendakariak. «Elkarbizitza ona lortu nahi dugu, elkarri ulertzea, baina gure kultura ez dugu galdu nahi. Euskaldunek beren gauzak daukate, eta gure geureak, eta guztiok heldu behar diegu gure gauzei».

AUZO ELKARTEKOAK BAIKOR Auzo elkarteen egoitzan, Aldapa kalean, ekin genion, eta jada gaztetxoek ere —hiruzpalau urtekoak— eskolara hasi dira joaten». Arrazakeri arazo horiek gaudituz ahal izateko, bi gizarte langileen laguntza dute, eta horretaz gain La Majari buruek eskolaketako hurrei hitzaldiak ematen dizkiete —hamalau joan den urtean— arazoak gertatzen direnean. Sarritan, droga eta ijitoen arteko lotura estua aipatzen da. Iruñeko Alde Zaharrean egundun lotura

den larunbatean jardunaldien barnean antolatu zituzten *payo* eta ijitoen arteko pilota partiduak. «Partiduen amaieran, La Majariok heldu den urtean pilota partidu guztiak egundun batean egin ordez, txapelketa egitea proposatu ziguten. Gustura daude, lehendakariak azaldu zigunetz».

Jarauta eta Descalzos kaleetan biltzen dira Iruñeko Alde Zaharreko ijito gehienak. JOXE LACALLE/ XOUSE SIMAL/ AITOR BAYO

den larunbatean jardunaldien barnean antolatu zituzten *payo* eta ijitoen arteko pilota partiduak. «Partiduen amaieran, La Majariok heldu den urtean pilota partidu guztiak egundun batean egin ordez, txapelketa egitea proposatu ziguten. Gustura daude, lehendakariak azaldu zigunetz».

Alde Zaharra ere *ghetto* bihurtzeko arriskuan dagoela maiz aipatzen bada ere, Armingol baior ageri zen arrisku horren aurrean. «Era guztiakoa jendea dago, eta begirune pixka bat badago, agian bakoitza bere aldetik ibiltzen delako. Esaterako, Descalzos eta Jarauta karraketan ijito asko dago, eta ez dago inolako arazorik, egaxuen aldetik nolabaiteko arrazakeria bada ere». Bestelako arazo latzagoak badaudela gaineratu zuten auzo elkarteko kideak. «Gazteak aisialdiaz gozatzera etortzen dira eta hemen bizi den zahar jendearekin arazo latzak izaten dituzte».

Azkenik, eta agur esan aurretik, jardunaldiek harremanak hobetzen eta sendotzen lagundu dutela azaldu zuten Armingolek. Horren lekukotzat jarri zuten joan

SOS, Telebista

● Egunkarietan irakurri duzenez, duela egun batzuk leio berri bat ireki ziguten iruindarren etxe guztiak egongeletan. Ordu eskas batzuk izan genituen Telepamplonaren kolore berria jaso ahal izateko gure kaleidoskopio antenadunen bitartez. Argi disdiratsua, uhinek eskeinitako bide ikustezinak erabiliz, instant bateko ibilaldia burutu zuten hiriburuko udal estudioetatik hirihorron supazter karratu modernoetara: zappingzaleen zorarena.

Baina ez zuten luze iraun telemagailuaren biziotsuskoen gozoak, Madrilko zentsuraztaile kamutsek, Inkisizio Sainduaren izpiritua berreskuratu eta bapateko Kruzada bati ekin baitzioten telebista jaiotze berriaren pamplonatasuna birrintzeko asmoz. Ez genuen paradarrak izan gure agintari bandurriaduna 'Clavelitos' jotzen ikusteko, ez eta familiaren anaitasunean besarkaturik, burua kulunkatzeko musikal agintzen duen eritimoa segituz. Integrisimo gehiagorik ez, pentsatu omen zuten madrildar baldarrek.

Zentralista hauei gogoratu behar zaie adierazpen askatasuna denok dugun eskubidea dela. DENOK. Etxabakoitz, Mendebalde, Rinaldi zein Orvina-kook. Gainera, zergatik aguntatu behar ditugu Venezuelako kulebroiak? Ez al litzateke askoz ere politagoa, esaterako, Mafuetan filmatutako bat ikustea? Gure saltsan, gure azentuz, eta ez Ameriketako ahotzaren dute doinu ezitzi-anorexikoa.

Zoragarria litzateke Iruñerriko azti guztiak biltzea (Burlakoa barne) eta makro reality show bat ekoiztea. Edota, amerikatarren antzera, unibertsitatean ikasten duten lau pisukide gazteren txantxak ardatzat hartuz, telesaila bat egitea. Nolabaiteko etekina atera behar zaio bi campus edukitzeari. Imagina ezazue: bata leiztarra, Azagrakoa bestea, Lugokoa hirugarrena eta japoniarra azkena. Nork bere izaera, baina denak oso modernoak eta alaitsuak. Oso istorio-txo superdibertigarriak izanen


lirateke; hagitz guay. Loiolako San Ignazioaren esatutatik zatiak desagertzen diren bakoitzean ere ongi legoke 'Non ote?' bat antolatzea. Eta, nola ez, 'Legearren mugan' edo Udaltzaingoak argitzen dituen kasu korapilatsu guztiak eskeiniz. Metropoliago gineteke huskeri hauek zainduko bagenitu. Beraz, agerian dago Pamplonako telebistaren premia hiri modernoak, gaztea eta dinamikoa izan nahi badugu.

Hala ere, gauza batek harritu ninduen; funtzionatzen hasi orduko, kexu azalduko ziren hainbat iruñes SOS-Nafarroaren telefonoan. Nori eta SOS-Nafarroari deitu. Zergatik hots egin katastrofe edo ezberretan nafarren osotasun fisikoaren ardura hartzen duen erakundeari, hain zuzen ere? Larrialdi batean al geunden? Hain arrisksua zen programazioa?

Bururatzan zaizkidan bi erantzun posibleetan erakusten da egundun bazegoela nolabaiteko arriskua osotasun psikorako: a) Arestian pantailaratutako kateak interferentziak sortu zituen, Hauek, halaber, interferentzia berriak sortu zituzten teilekisleen neurona katodizatuean, burmuineko kolapsua eraginez telebista puntu eta marra zoratuz beterik ikusi zutenean. Ondorioz, desoreka psikikoa nagusitu zen Iruñeko egongeletan.

b) Emisio berriaren kalitatea hain txarra izanik eta tainak auzarkeri baten aurrean etsietsian ekin zioten telefonoz deitzaari (Tele 5arekin berarekin artean gertatu ez dena), momentu hartan gure osotasun mentala berma zezakeen erakunde salbatzaileari.

Edozein kasutan ere justifikaturik zegoen SOS-Nafarroari deitzea. Biru berriak jaiotze baina Tehen hil behar dira. Agian zenbait kasutan adierazpen askatasuna ahaztu eta eskerrak eman beharko genizkioke Madrili.



Inoiz baino hobeto

J. K. L. / IRUÑEA

Arrazakeria, gehiegikeria eta zokoratzea jasaten dute oraindik ere Alde Zaharreko ijitoek, Nafarroa osoko ijitoek bezala. Hala eta guztiz ere, inoiz baino hobeto bizi direla esan daiteke, Estatuan gertatutako trantsizioaren ondorioz. Dena den, oztopo eta bazterkeria asko oraindik ere gaudituz ke daude. Esate baterako, Mario Gaviria, Manuel Aguilar eta Miguel Laparra soziologok eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Lan Eskolako irakasleek plazaratu txostenaren arabera, ijitoek gutxi gora-behera Nafarroako biztanleriaren % 0,6 osatzen dute, eta kartzelaratu % 10 dira. Bestalde, jaiotzerakoan euren bizi itxaropena egaxuena baino 15 urte laburragoa da.

Dena den, aurrerapausoak ere

eman dira. Osasunari dagokionez, ijito guztiak Nafarroako Osasunbidearen babespean daude. Eta are gehiago, erakunde honek, formakuntza ikastaroa egin eta gero, dozena erdi emakume ijito gazte kontratatu ditu osasun agente gisa lan egin dezaten euren komunitatean. Baina aipatu txostenaren arabera, ezin dira osasun orokorra eta osasun pertsonala nahastu. Ijito gutxi ailegatu diren erretirora. Goseak ez badaude ere, haur ijito asko arrautza frijituak, patata frijituak, *gusanitoak* eta antzekoak jaten irauten dute bizirik. Bestalde, bronkioteko gaixotasunak izaten dituzte ijito askok, eta gero eta gehiago hedatzen ari dira komunitate honen barnean HIESA, B hepatitis eta tuberkulosia.

Hezkuntzari dagokionez, esan daiteke —beti ere txostenaren arabera— haur ijito guztiak eskolara joaten direla. Arazoa zera da, *payo*-ak baino beranduago hasi eta goizago bukatzen dutela eskola. Gehienek ozta-ozta ikasten dute idatzi eta irakurtzen, merkatuan aritzeko beharrezkoak diren eragiketa matematikoak besterik ez dituzte ikasten, eta gidatzeko karneta ateratzeko beharrezko dena, besterik ez. Gutxi heltzen dira institutura, eta bakarra ere ez da orain artean unibertsitate publikora, pribatua edota UNE-Dera ailegatu. Heldu den urteari begira, 25 urte baino zaharragoak diren zenbait emakume unibertsitate publikoan sartzen saiatuko dira. Egaxu eta ijito nafarren kopurua kontuan hartuz, egundun 35-45 ijitok egundun beharko lukete unibertsitatean, eta jada 120 libentziadun.

Etxebizitzari dagokionez ere,



Pello Arana Irakaslea

arazoa latza da txostenak agerian uzten duenez. Nafarroako ijitoen % 10 leizezuloetan bizi dira, eta beste hainbat egoera txarragoetan, hala nola etxe zahar-zaharretan (Tuterako alde zaharrean, adibidez). Horretaz gain, ia kasu guztiatan pilaturik bizi dira. Bestalde, 150 Zangozako aurrefabrikatutako etxe txiroetan bizi dira, 40 familia kamioietan, beste 51 Dera ailegatu. Heldu den urteari begira, 25 urte baino zaharragoak diren zenbait emakume unibertsitate publikoan sartzen saiatuko dira. Egaxu eta ijito nafarren kopurua kontuan hartuz, egundun 35-45 ijitok egundun beharko lukete unibertsitatean, eta jada 120 libentziadun.


Etxebizitzari dagokionez ere,

briketan egiten dute lan, baina orokorrean ijitoak ordaindutako lan merkatutik landa daudela esan daiteke. Gainera, etorkin berriekin lehian, nekazaritzako behin-behineko lanpostuak galdutuz egundun bizi dira. Orain arte txartara biltzen aritzen ziren bizimodu ateratzeko, baina prezio jaitzierak eragindako porrotaren ostean, azoketan saltzea da gertatu zaien euskarri bakarra. Mundu horren barnean familia asko merkataritza sistematan integratu egin dira —Gizarte Segurantzak eta guzti—. Nafarroako Gobernatzak badira ere, ijitoen arazorik larriena langabezia da. Zenbait herrietan —Zarrakaztelu eta Ribafordan esaterako—, emakumeek, gehienbat, kontserba fa-

Gazteendako Zokoa



XAKEAN



Nafarroako Taldekako Xake Txapelketaren 4. Jardunaldiko partida, 1993ko azaroaren 6an jokatu.

Pablo Del Rio, 2.130 ELOkoa (Runa 'A')-Unai Garbisu, 2.300 ELOkoa (Orvina 'A').

1.Zf3,f5; 2.e4,e4; 3.Zg5,e5; 4.d3,Ae7; 5.e4,Ag5; 6.Dh5 xa,g6; 7.Dg5,Dg5; 8.Ag5. Garbitu egin da taula, eta berdinketa soma daiteke. Peoi bat eman dute txuriek eraso egiteko, baina berehalaxe itzuli dute beltzek bere defentsa indar dadin. 8....Zc6; 9.Zc3,Zd4; 10.Zd5, Ze6; 11.Ah4,d6; 12.0-0-0,Ef7; 13.Ac4,Eg7; 14.hG-f1,g5.

Oso jokaldi ona. Txuriek 'f' zutabea sortarazten zuten arriskua deuseztatu egin dute. 15.Ag3,Zf6; 16.Ze7,Zf4; 17.Af4,g-f4; 18.Zc8. Oso zailantzakoa. Posizio itxietan zaldia alfila baino baliotsuagoa delako.

18....aG-c8; 19.Ae6,cG-d8; 20.Af5,Ef7; 21.g4,g3; 22.f-g3, Ee7; 23.Gf3,h5; 24.dG-f1,dG-f8; 25.h3,hG-g8; 26.Gg1,Gg5; 27.Ga3,a6; 28.Gb3,b6; 29.Gc3,Ed8; 30.b4. Arazo latzak hasiko dira txurientzat. Ikus koadroa. Errazagoa ematen zuen 'g4' jokaldiak. 30....Zd5; 31.Gb3,Ze7; 32.Ae6,Zc6; 33.Ac4b5; 34.Ae2,Zd4; 35.Ge3 Ze2; 36.Ge2,Gf3; 37.Ed2,gG-g3; 38.Gg3,Gg3; 39.Ge3,Ge3; 40.Ee3,Ee7. Txuriek etsi egin zuten. Gehiago borroka zeza- keten, baina beltzen menpean zegoen partida.

Zakur baten ibilerak

IÑAKI BILDARRAZ

1985ko urriaren 5an jaio nintzen, zakur bat besterik ez naiz. Jaiotzean ez nekien zihur zer nintzen, behia, behorra, zerria, katua... Baina, ez, zakur bat nintzen, zakurra baino gauza inozenteagorik...

Jaio, baserri zahar batetan jaio nintzen, nire ama elurak harraparurik edo han zengoen, eta ni jaiotzean dena zuri-zuria ikusi nuen. Haizeak jotzen zuen zuhaitzetako hostoak astinduz eta horrela hostoetako elurra eroriaz. Zerua urdin zegoen eta eguzkiak indarrez jotzen zuen, zakurra izatea tokatu zitzaidan, zakurra baino gauza inozenteagorik...

Baina hementxe nago, basamortu baten erdian, hala iruditzen zait neri behintzat. Arabian nago, nire nagusia orain dela ordu pare bat hil da, basamortua hori-horia da, haizeak bere indarrez ondarra altxatzen du, urruti, eta ez da ezer ikusten,

gauetan bakarrik hodeiertza ikusten da.

Egun pare bat daramatzat, egarria, gosea, asperkeria, hankak ahuldurik, mingaina lehorturik, entzumena ia galdurik... dira nere gorputzean sentitzen diren gauzetariko batzuk. Eguneko ordu gehienak etzanda ematen ditut, eta etzanda ez nagoenean oinez bakarrik kilometro bat egiten dut, eta horrela hurrengo egunerako uzten diot ibiltzeari edo norabait ailegatzeko esperantzari. Eta esaerak dioen bezala: 'Zakurra dabil gerora/ sekula ez da ailegatuko itxasora/ zakurra dabil gerotik gerora/ sekula ez da helduko bere helburura'.

Nik asmatutako esaera bat besterik ez da hau, orain gogoratzen zaidan bakarra itsasoko ur gazia bait da. Itsasoan murgildu, nere gorputza garbitu eta nere aurpegia busti. Egunean kilometro bat besterik ez dut egiten, eta gero etzan.

Bost egun daramatzat ba-

samortuan, animalia arraro batzuk ikusi ditugu urruti, geroago hurbildu zaizkit, oso ongi azertu naute. Luzeak, oso meheak, gogorak eta hankarik gabeak dira. Bapatean, ziiiiiii! eginez neregantantz hurbiltzen hasi dira, abiadura haundian, eta ni korrika abiatu naiz gorputz eta arimaz. Bapatean, hondarrez egindako, mendi bat zeharkatzean, itsasoko ur gardenaren dizdira ikusi dut. Oraindik animalia haiek atzetik dauzkat, itsas ertzera ailegatzean salto egin dute eta orduan igerian hasi naiz. Animalia haiek itsas ertzean geratu dira. Hortik denbora batetara animaliak joan egin dira, orduan ni itsasotik irten naiz eta berria bezala sentitu naiz, baina gosearekin.

Orain itsasoan nagoelarik erabat damaturik nago egunean kilometro bat egiteagatik, kilometro gehiago egin banitu, azkarrago iritsiko nintzen eta horregatik esaten dut, zakurra baino gauza inozenteagorik...



Monjardin eta Estellerria (II)

Joan den astean Monjardinek bete zuen artikulu osoa. Mendiak izen zaharra zuela esan genuen: *Deio*. Besterik ez, izen horri buruz. Euskaraz esanahi garbirik ez badu ere behialako euskaldunen ahoetan kurrutzen zuen izena bide da. *Deio* forma- rekin batera *Degio* eta *Deiuditu*.

Izen aproposa historia liburuetan erabiltzeko, gaztelu zaharri buruz mintzatzeko... Sarritan esan bezala euskaraz ongi bereizten jakin beharko genuke izen historiko eta praktikoen artean. Ez legoke gaizki, gaztelaraz egiten den bezala, biak erabiltzea zein bere testuinguru egokian. Inolaz ere ez *Deio* forma euskaraz hartuz eta *Monjardin* arbuiauz.

Deio izena, gaur kontrakoa irudi arren, oso ezaguna izan zen Nafarroa osoan. Erdi Aroan Nafarroan zenbait eskualdek oso personalitate berezia zuten, Deierrri haietako bat zen. Gutxi gora behera gaur egun Estellerria dena lehenago Deierrri deitzen zen, erdaraz *Terra Degense* deitua. Hots, *Deio Heria*. Horrek esan nahi du *Deio* zela eskualde horretako erreferentzia nagusia. Garai horretan Lizarra zaharra hirixka ñimiñoa bide zen, gazteluz hornitua baina bertakoek eta ondokoek bakarrik ezagutzen bide zuten. Antso Handia erregeak, haatik, Donejakue bidea Lizarratik pasarazi zuen, eta forua eta izen berria eman zion. Izen berria eta izan berria, dudarik gabe, laister zabaldu baitzen *Estellaren* ospea nafarren artean eta *Deierrri* izen zaharra zokoratu zuten *Estellerria* hobetsirik. Zokoratu, diot, ez akabatu, *Deierrri* gaur Monjardinetik franko urrun dagoen *Yerri* baita. Eskribauek, askotan gertatzen den bezala, gaizki interpretatu izena *de+yerri* eta erabat desitxuratu zuten. *Estella*, *Estella* denetik, izan da betidanik euskaldunek erabili duten izena. Iruña. aldiz, beti Iruña izan da. Lizarra, berriz, deus ere ez zen *Estella* bilakatu arte. Horregatik behin ere ez dugu irakurriko Lizarrerria, *Estella* eta *Estellerria* baizik. Esate baterako *Estellerribidea* kausitzen dugu Orkoienen, eta *Estellabidea* Lizarra ondoko herri guzietan, *Lizarrabidea* inoiz ez.

Baina gaur Lizarra nagusi da eta ezin da ukatu euskaldun alfabetuen artean Lizarrak izan duen arrakasta. Ez noa orain erabaki erroto baten kontra bazterrak nahastera. Agi denez, arrazoi historiko eta sinbolikoak euskaldunen 600 urteko usadioa baino gehiago izen zirela. Azken finean, aixe errezagoa baita erdaldun batentzat euskaldun sentituaraziko dion izen-sinboloa onartzea euskaraz ikastea baino.

Orain, berriz, egoera orekatuego dagoenean, urrikal gaitzen *Estellerriarekin*. Lizarrerria mila aldiz garbiago bada ere laboratoriko kreatura izanen da beti.

MIKEL BELASKO



Jenero Xumekoak


Klaus Kinski Aranoko neskaz Ionescoki

Mundua zentzugabekoa dela esatean, ez zaitut hor barrenean sartzen. Inolaz ere ez. Espero dut ni ikustera etor zaitez. Horregatik ditut jaun done guztiak oporretan, ea zure begietako bidrieretan katuak hobeki ixurtzen ote diren. Ez orain legez, kakatuak, kakatuak, kakatuak, kakatuak.

JEREMIAS ERRO

KAZKARROAN

HITZ GURUTZATUAK



EZKER-ESKUIA: 1.- Bahetzeko tresna. 2.- Musika nota. Izukaitz. 3.- Zaunka egin. dago. 4.- Abelen anaia. Gari sorta. 5.- Islandiako ibilgailuetan. Aluminiorearen sinbolo kimikoa. 6.- Apaiz. Lagun. 7.- Masuriorearen sinbolo kimikoa. Uhina. 8.- Sailak. Bi kontsonante. 9.- Esku itxia.

GOTIK-BEHERA: 1.- Gipuzkoan, duk. Sortu zintuena. 2.- Goretsi. 3.- Bokala. Erraz. Pluralean. 4.- Zelai, lau. Lurra. 5.- Autobus. Euskal sindikatu abertzalea. 6.- Kontinente bat. Kolore militarra. 7.- Ihar hitzaren erdian. Niri, da. Berrogeitamar. 8.- Atzerriko hizkuntza dakiena. 9.- Aparkatzeko ordenantza. Euskal alderdia.

Bizi Bizian

Hirurehun bat ardi hil dira uztailetik hona Xulapain eta Ezkabarte inguruan, Iruñetik hamar kilometrora, txakurren erasoak direla medio. Azken erasoak joan den astean izan zen, eta bertan zazpi ar-

di hil zituzten txakurrek Antsoain-Oteizan. Artzainek zenbait txakur hil dute dagoeneko, baina jabeek beren txakurren ardura hartzen ez duten bitartean arazoak iraungo duela diote.

Basa txakurren beldur

ALBERTO BARANDIARAN / USI

Basa txakurren erasoak aurtengo uztailean hasi ziren, Marikalainen, Usiko Borja familiak duen artaldean. 28 ardi hil zituzten orduan, eta bost egun geroago beste hogeita bi. Irailaren 5ean, Berriogiti eta Zildotzen zeuden beste 26 ardi hil zituzten eta joan den irailaren 26an, 150 inguru, Ollakarizketako borda batean. Orduan ardi gehienak itota hil ziren, txakurrek eraso egitean pilotuta, izututa. Guztira 235 ardi. Antsoain-Oteizako Francisco Gonzalori, bestalde, 40 hil zizkioten abuztuan, eta joan den astean, larunbat goizaldean, beste zazpi, 30 bat zauritzeaz gain. Artzain honek herrian barreiatu eta izuturik aurkitu zituen abereak, eta hildakoak oso sakabatatuta, «ardien atzetik ibili zirenen seinalea». Horrelako erasoak, izan, beti izan dira eskualde honetan, baina inoiz ez aurtengoak bezalakoak. «Aurtengoa gehiegizkoa da», diote artzainek.



Miguel Angel Borjari 235 ardi hil dizkiote txakurrek.

ALBERTO BARANDIARAN

txira beste lagun bat bilatu eta joan den astean ehun bat metro-tara ikusi zuten Francisco Gonzalok eta Jose Javier Borjak.

Lehendabiziko erasoak izan zirenetik, etengabeko zorabioan dabilta artzainak. Txakurren bila ateraldiak, ardiak zelaietan uzteko lasaitasunik ez... «Horrela jarraituz gero ez gara artzainak

izango, goardiak baizik». Epe honetan egindako ateraldietan hiru bat txakur hil dute mendian, eta beste batzuk harrapatu eta Animalien Babeserako Elkartera eraman. Horrek, baina, kalte eta buruhausteak besterik ez dizkie ekarri. «Kulparik ez duena ordaintzen ari da orain», dio Jose Javierrek. Izan ere, joan den as-

tean mendian libre zebilen txakur bat hil zuten, eta jabea joan zitzaien guztiz penaturik, txakurra paseatzera atera zuela esanez. Hori dela eta, txakurrekin zuhur izatea eskatzen dute, horrelakorik gerta ez dadin. «Nafarroako Gobernuak badu honetan zer esanik» dio Miguel Angel Borjak, «txakur asko harrapatu ditugu-

Txakurrek ez dute jateko hiltzen, jarrera barneratuta daukate jada. Soilik odol eske etortzen dira».

lako mikrotxipik gabe, aske, mendian. Txakurrak lotuta ibili behar duela dioen agindu foralik baldin badago, zergatik ez da betetzen?».

Orain zelatan egotea besterik ez dute, eta kalte materialekin baino egoera honek sortzen dituen buruhauste eta ondorioekin arras kexu dira. «Erasoek beste artzainek ere izan dituzte, baina guk egin behar izan dugu borroaren lana. Gu gara txakur hiltzaileak, baina hona ez da inor etorri, ez laguntzera, ez galdetzera, ez ezertara». «Konponbidea, jakina, ez da txakurrak hiltzea» dio Jose Javierrek, «jabeak bere txakurren ardura hartzea baizik. Jendeak mendian uzten ditu txakurrak, eta gero hiltzen badugu bat, munduko txakur onena zen, santua. Ba, izan dezatela etxean, edo lotuta!».

Hildako txakur baten autopsia egiten ari dira orain, erasoetan parte hartu duen jakiteko, baina bitartean, eraso beldur itxaron egin behar.

«Kumeak egiten badituzte, zer?»

A. B. / USI

Erasoen sorburua Beltzuntze herrian —Usitik bi kilometro-tara— Animalien Babeserako Elkartek paratu nahi zuen zentroan dago. Orduan zabaldu zen bertan txakurrak jasotzen zirela eta jendea txakurrak bertan uzten hasi zen. Hori, baina, gaizki-uler-tze bat izan zen, asmoa besterik ez zen eta. Kontuak kontu, txakur asko inguruan deslari gelditu ziren garai hartan, ardi kontrako erasoak hasi ziren garaian, hain zuzen. Artzainak mendira atera ziren orduan, eta zenbait txakur hil. Ondorioz Animalien Babeserako Elkartek agiri bat kaleratu zuen, hori salatuz, eta tentsio handia sortu zuen artzainen artean, ardiak hil berriak. «Agiria izugarria zen» dio Jose Javier Borjak, «hiltzaileak eta basatiak ginela esanez. Eta hortik egun batzuetara 150 ardi hil zizkiguten. Non da, bada, basakeria? Non kultura falta? Txakur bat ezin da hil, eta

ardiak, bost axola! Gu horretaz bizi gara, gaizki bizi ere». Azkenean dena konpondu zen, eta egun elkartearen laguntza biziki estimatzen dute artzainek. «Laguntza handia ematen digute, eta oso jarrera ona izan dute egun hauetan. Ardiak hil zituzten txakurrak hartu eta beraiei eman dizkiegu».

Horregatik, Beltzuntzeko bordan txakurrak bertan ez uzteko gomendioa dago garbi idatzita horman. Hala ere, kezka ez da desagertu, eta artzainek txakurrak mendian ugaltzekoela ohar-tarazten dute. «Guk txakur eme bat harrapatu genuen, baina txakur horrek kumeak egiten baditu, eta ugaltzen badira zer? Gainera, zenbat eta denbora gehiago eman mendian, orduan eta trebeago egiten dira». Beren ustetan, jendeak oraindik ez dakizki arazoaren benetako nondik-norakoak, «ezbeharren bat gertatu arte. Herriaren batean haur bat hiltzen badute, orduan hartuko dituzte neurriak».



Animalien Babeserako Elkartearen etxea Beltzuntzen.

A. B.

EHIZA TXAKUR BELTZA Animaliak Xulapain, Ezkabarte eta Berriobeitia bitiko inguruan dabilta, eta artzainen ustetan, uztaile aldera askatutakoak dira. Erasoa hasi bezain laster, zenbait ateraldi egin zuten, txakurrak ikusten ote zituzten, eta horietako batean birekin egin zuten topo. Haietako bat hil, eta besteak, ehiza txakur beltza eta handi baktek, ihes egin zuen. Handik gu-

Fermin Valencia

.....Sindikalista-ohia

Nafarroak baditu kateak, barrutik eta kanpotik... zioen abestia famatu egin zuen Fermin Valencia abeslari eloarrak. Frankismoaren kontrako garaiak zi-

ren, eta Nafarroan langile mugimendu indartsuak zeraman bere bizkarrean borroka. Egun, ez du bere burua kantautoretzat jotzen, eta kate haiek oraindik badiraute dio.

«Kateak urre kolorekoak dira orain»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Frankismoaren garaian sindikalista amorratua, bere abestien bidez egin zuen borroka Fermin Valenciak. 'Paloteado', 'Txanxangorria', 'Cadenas' eta beste hainbat abesti Nafarroako mugimendu indartsu guzti haiei leloak izan ziren. Egun, kantagintza utzita, ez ditu inondik inora bazterrean utzi orduko erreibindikazioak, eta helburuak oraindik lortzekoak direla dio. «Helmuga argi indartsu bat bezala izaten da, eta bidea zuzen edo zeharka egin daiteke. Argia, baina, ez da galdu behar, eta nik oraindik ikusten dut. Galdu izan banu ez nintzateke ni».

EGUNKARIA.— Fermin Valencia aipatzen denean, beti gogoratzen dira abestiak, frankismoaren kontrako borroka, sindikal garaia... beti gogoratu. Gustuko duzu gogoratzea edo nahiko utzita duzu guzti hori?

FERMIN VALENCIA.— Kantagintza oso utzita daukat, bai. Beti deitzen dizute zerbaitetarako, eta ez dakit ezetz esaten, baina utzita daukat. Eta egiten dudanean, ez oso gustura. Motibazioa badauk, nere herria eta nere jendearekiko elkartasuna daukadalako, eta badakit nik eskaini dezakedala lehen musikaren bidez ematen nuen, baina hori landu egin behar da, jorratu, eta nik utzi egin behar izan nuen. bizi behar nuelako. Horregatik, orain bortxatua sentitzen naiz kantatzera noanean, ez baitut gaiak eta musikak landu.

EGUNKARIA.— Beraz, ez duzu idatzi edo musikaren bat osatzen...

VALENCIA.— Denbora daukadanean, zerbait egiten dut, baina nerretzat bakarrik. Gainera, nik ez dut sekulan nere burua musikaritzat jo. Izan dut nolabaiteko sena zenbait gai musikaren bidez

azaltzeko, baina...

EGUNKARIA.— Kantautorearen definizioaren barruan ere ez duzu zure burua sartzen?

VALENCIA.— Ez, ezta lehen ere. Horretan aritzen nintzen, baina nere musika eta beste batzuen artean alde handia zegoen. Hori bai, oso harro nago egin nuenarekin, konpromezuak hartu eta gaiei heldu egin bainien.

EGUNKARIA.— Oso urrun ikusten dituzu garai haiek?


VALENCIA.— Garaiak urrun daude, baina gaur egungoa ez da, hangoarekin alderatuta, oso urrun, oso desberdin. Orduko gogo eta animoekin berriro abesten hasiko banintz toki bat izango nukeela sinetsirik nago. Orduko arazoak ez dira desagertu, eta herriaren egoerak ez du hobera egin. Demokrazia dugula diote, baina ikusi egin behar da zer demokrazia mota dugun. Nere herrian askatasunik ez dago... beraz, oraindik setiatuta sentitzen naiz gauza guzti horiekin.

EGUNKARIA.— 'Nafarroak baditu kateak, barrutik eta kanpotik...' abesten zenuen orduan. Kateren bat hautsi da, edo gehiago ditugu?

VALENCIA.— Lehen burdinezko kateak genituen, eta orain urre kolorekoak, baina kateak, beti ere.

EGUNKARIA.— Orduko abeslarietako protesta egiten zuten beren abestien bidez, baina guzti hori galdu egin da eta protestarako beste bideak bilatzen dira.

VALENCIA.— Orduan oso zaila zen publikoan norberaren ideiak azaltzea. Gogoratzen naiz mitinen bat bota behar genuenean, lanerako autobusa hartu eta bidean bertan egiten genuela. Baina nire bidea abestiarena zen, eta bertan ez nituen alderdi edo sindikatuaren leloak botatzen, neri barrutik ateratzen zitzaizkidanak



JOXE LACALLE

baizik. Eta nere abestiak panfleto antzekoak izan ziren, ahal bezain ongi eginak beti, baina arazo zehatz eta ezagunei buruzkoak. Egun badira beste bideak protestarako, eta gureak ez dira erabiltzen. Gaur egun abestuko balitz berriro, ez luke zergatik protesta kutsu hori galdu behar.

EGUNKARIA.— Zer sentitzen duzu orduko zure abestiak entzuten dituzunean?

VALENCIA.— Batzutan lotsa

ematen dit, hain gaizki egiten bainuen... baina bestaldetik harro nago orduko mugimenduari nere ekarpena eskaini niolako. Ez naiz sentitzen ezeren sortzailea, baina bai faxismoaren kontrako borroka hori baitzen, batez ere.

EGUNKARIA.— Borroka haren fruituak nahikoak edo eskasak izan dira?

VALENCIA.— Zerbait positiboa eskaini zuen, baina ez orduko ur jarioak zeukan indarraren ara-

Ez naiz sentitzen ezeren sortzailea, baina bai faszismoaren kontrako borroka hori baitzen, batez ere.

berako guztia. Gure belaunaldiak borroka handia egin zuen eta batzuk, demokrazia deitzen denaren etorrerarekin, egokitu egin dira, ahaztu egin dituzte helburu eta gogo guzti haiek. Baina, bai, borroka hura mamitu da. Herri honetan oso bitxia izan da langile mugimenduaren borroka, orduko borroka hori baitzen, batez ere. Mugimendu hori oso ideologizatua zegoen, eta horrek eman du nazioa izatearen kontzientzi indartsua.

EGUNKARIA.— Urte hauetan zer galdu eta zer irabazi du Nafarroak?

VALENCIA.— Jende xumearen arteko elkartasun handia galdu duela uste dut, baina, bestaldetik, kontzientziaturik dagoen jendea oso seguru dago bilatzen duenaz. Ez da erraza izatea herri honek bidegabekeriaren aurrean erantzuteko duen ahalmena, jasan duen guztia jasanda, baina hor dago.

EGUNKARIA.— Berriró abestuko zenuke?

VALENCIA.— Beste erremediorik ez balitz, bai.

EGUNKARIA.— Eta zeintzu lirakete baldintzak?

VALENCIA.— Nere baitatik atera behar du. Hasi nintzenean, zerbait esateko neukan beharrak bultzatuta hasi nintzen, eta berriro ere behar hori izango banu, kantatuko nuke, bai horixe. Ondorio guztiekin... dena utziko nuke.

NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

'IBARDINEKO ARTZAINSA' NUMBER ONE IN THE NAVARRES REPUBLICAINS JUERGA'S © FERMIN VALENCIA. THANK YOU MISTER.

